

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakaria eta Mendoza kontseilaria Nafarroa Oinezko antolatzaileekin bildu dira

Nafarroako ikastolen festa urriaren 16an, igandea, ospatuko da, Vianako Erentzun eta Lodosako Ibaialde ikastolen alde

Astelehena, 2016.eko urriak 3

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek eta Hezkuntzako kontseilari Jose Luis Mendozak Ikastolen Federazioko ordezkari bat hartu dute gaur goizean Nafarroako Jauregian. Bileran, Lehendakariak eta kontseilariak Nafarroa Oinez ospakizunen prestakuntza-lana nola doan bertatik bertara jakin ahal izan dute. Jai hori urriaren 16an ospatuko da, eta Vianako Erentzun eta Lodosako Ibaialde ikastolek antolatuko dute. Bilkuran, aurtengo ediziorako gonbidapenak banatu zaizkie, gainera.



Barkos Lehendakaria eta Mendoza kontseilaria, Oinezko antolatzaileekin.

Ikastolen Federazioaren aldetik, bertan izan dira: federazioko lehendakari Mikel Asiain; federazioko zuzendari Josu Reparaz; Erentzun ikastolako lehendakari eta zuzendari Iban Izurza eta Maite Otero, hurrenez hurren, eta Ibaialde ikastolako zuzendari Iñigo Telleria.

Aurtengo Nafarroa Oinez goiburua "Hartu, tenka, tira!" da, eta bi ikastolen artean elkarrekin egiten den lehen edizioa da. Antolatzaileen helburua da, alde batetik, ekitaldi honek euskara sustatzen lagundu dezala, eta bestetik, Ibaialde eta Erentzun ikastolen hezkuntza proiektuak ezagutaraztea.

Erentzun ikastola 1978an sortu zen, duela 35 urte, eta gaur egun 13 irakasle eta Vianako eta inguruko udalerrietako 100 ikasle baino gehiagok osatutako klaustro bat du: lau urterekin hasten dira ikasten bertan eta Haur Hezkuntza amaitu arte jarraitzen dute eskola horretan. Bestalde, Ibaialde ikastola 2001ean sortu zen Muskaria eta Deikaztelu ikastolek bat egin ondoren. Une hauetan, bi urtetik Lehen Hezkuntza amaitu arteko hezkuntza eskaintzen du Lodoso, Sartaguda, Andosilla, Mendabia eta inguruko 60 ikasleentzat. Zazpi irakasle ditu.